

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Enpresa aurrera eramateko zenbait baliabide izan beharko ditugu: baliabide fisikoak ( enpresa aurrera eramateko behar ditugun materialak eta lekuak dira), baliabide intelektualak ( enpresa aurrera eramateko behar izango ditugun ezagutzak enplegu bakoitzarekiko), giza baliabideak ( enpresa aurrera eramateko behar izango ditugun pertsonak dira, bakoitzak zerbait egingo eta aportatuko du enpresan) eta finantza baliabideak (enpresa aurrera eramateko behar izango dugun dirua nondik aterako dugun).

- **Baliabide fisikoak:**

Lan egiteko lehenengo behar duguna lokal bat da, tailer giza eta denda giza erabiliko duguna. Lokalaren barruan altzairuak behar izango ditugu, arropa ekoizteko josteko baliabideak behar ditugu: josteko makinak, telak, mahaiak, aulkiak, haria eta artaziak zehazki. COVID egoeran gaudenez bezeroak beraien eskuak desinfektatu beharko dituzte dendara sartzean eta ateratzean. Arropa zintzilik eta ordenatuta izateko pertsak edukiko ditugu, arropa nola geratzen den ikusteko manikiak ere edukiko ditugu eta bezeroak beraiengan nola geratzen den arropa ikusteko ispiluak eta probadoreak izango ditugu. Bezeroak arropa zenbateko kostua duen jakiteko prezioen etiketak ipiniko diegu arropen eta horretarako etiketen makinak beharko ditugu. Azkenik, dirua seguru gordetzeko eta denda seguru mantentzeko diru kutxa bat eta segurtasun alarma behar izango dugu. Arropa enpresara heltzeko eta bezeroei itzultzeko furgonetak erabiliko ditugu. Ofizinako lana egiteko eta bezeroekin harremanetan jartzeko ordenagailuak, inprimagailuak eta ofizinako materiala (boligrafoak, papera, grapagailua...) izango dugu.

- **Baliabide intelektualak:**

Lehenengo, diseinatzaileek diseinatzeko sormena eta originaltasuna izango du, horrela arropa berritzaileak eta bezeroen gustukoak sortu egingo ditu. Bigarren, administrazioa daramana oso ona da zenbakiekin eta kontuak egiten, oso gustukoa du enpresa administratzea eta bezeroekin harremanetan egotea. Hirugarren, teknikariak teknologia gustukoa du, oso trebea da web orriak egiten eta oso gustukoa du teknologiako munduan daitezken arazoak kopontzen. Laugarren, furgonetak gidatuko duena mugitzeko erraztasuna du eta beti leku batetik bestera joatea gustukoa du, oso gidari trebea da. Jostunak josteko erraztasuna dute, oso gustukoa dute arropa berriak sortzea. Garbitzaileak oso trebeak dira garbiketara eta dena garbi utziko du. Azkenik, dendako saltzailea oso alai izango da bezeroekin hitz egiten eta oso trebea izango da beraien laguntzen.

- **Giza baliabideak: (langileak)**

Arropa berriak diseinatzeko disenatzailea izango dugu eta arropak josteko jostuna. Web orria sortuko duena eta teknologiako sektorean adituko dena teknologian aditua izango da eta, kontuak egiteaz eta enpresa administratzeaz sekretarioa izango da. Enkarguak enpresara eramatea edo bezeroei bueltatzeaz enkargatuko denak banatzailea izango da. Denda saltzaileak izango ditugu, dendaz arduratzen direnak. Azkenik, lokala garbi mantenduko duena garbitzaileak izango dira.

- **Finantza baliabideak:**

Gure enpresa aurrera eramateko lehendabizi gure dirua inbertituko dugu, baina ez da nahikoa izango eta horregatik bankura mailegu bat eskatu beharko diogu.